

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA 2018KO AZAROAREN 19ko OHIKO BILKURAREN AKTA

Bertaratuak:

Juan Antonio Fernández jauna, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzako idazkari nagusia eta Kontseiluko presidentea, lehendakariak eskuordetuta.

Sofía Marroquín andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidentea eta Kontseiluko presidenteordea.

Paul Ortega jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

José Ignacio Bañuelos jauna, Hezkuntza Sailaren ordezkari gisa.

Jesús Losada jauna, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren ordezkari gisa.

Irma Basterra andrea, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren ordezkari gisa.

Zuriñe Elordi andrea, Emakunderen ordezkari gisa.

Ander Añibarro jauna, Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren ordezkari gisa.

Josu Basozabal jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz.

Mila Domínguez andrea, Iñigo Eguren jauna, María Viadero andrea, Eneko Gerrikabeitia jauna, Iñaki Orube jauna, Eva Silván andrea, María del Mar Magallón andrea eta Natalia Rodríguez andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkari gisa.

Carlos García de Bakedano jauna, Patricia Bárcena andrea, Zaloe Pérez andrea, Joseba Andoni Sainz de Murieta jauna, Gorka Urrutia jauna eta Estela Ciprián andrea, garapenerako lankidetzako beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz.

Noemí de la Fuente Andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Kontseiluko presidenteak gonbidatuta bertaratu dira Ainara Arrieta andrea, koordinazio teknikoaren arduraduna, Pilar Diez andrea, ekintza humanitarioko teknikaria, eta Ana Rojo andrea, aholkulari juridikoa, guztiak ere Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako kideak.

Josu Oscoz ere bertaratu da, entzule gisa, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ezin etorria adierazi dute:

Alberto Alberdi jaunak, Ogasun eta Ekonomia Sailaren ordezkari gisa.

Fátima Ansotegi andreak, Osasun Sailaren ordezkari gisa.

Mikel Antón jaunak, Lehendakaritzaren ordezkari gisa.

Ana Oregi andreak, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Batzordearen ordezkari gisa.

Nekane Zeberio andreak, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Fernando San Martín jaunak, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz

Maite Etxebarria andreak, Euskal Fondoaren eta Eudelen ordezkari gisa.

Santiago Martinez jaunak, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkari gisa.

Lekua: Lehendakaritza

Data eta ordua: 2018ko azaroaren 19a, 12:00 h

Jonan Fernándezek bertaratuei ongiatorria egin die, eta bilkurari hasiera eman dio, 12.10ean. Bertaratuen banan banako aurkezpena egin da jarraian. Ondoren, Jonan Fernándezek iragarri du Euskadiko GGKEen Koordinakundearen aginduz aldundien garapenerako politika-koherentziari buruzko azterlana egin duen pertsona, gai-zerrendaren bigarren puntuan azaltzeko asmoa zuena, ezin izango dela bilkurara bertaratu azken orduko ustekabe bat dela-eta, eta horregatik proposatu du bilkura honetako gai-zerrenda aldatu eta gai hori hurrengo bilkurarako uztea, azken horren [agenda](#) erabaki zelarik azaroaren 12ko batzorde iraunkorraren bilkuran. Honako gai-zerrenda honi jarraikiz egin dugu aurrera:

- Aurreko bilkuraren akta onartzea
- GLEAren 2017ko urteko memoriaren aurkezpena
- Ekintza Humanitarioko Dekretuaren berritasun nagusien aurkezpena
- Larrialdiko Laguntza Humanitarioko Batzordea berriro jardunean jartzearen egokitasunari buruzko eztabaida
- Hainbat gai, galde-eskeak

1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Bertaratuek inolako oharrik egin ez dutenez, akta aho batez onartu da.

2. GLEAren 2017ko URTEKO MEMORIA AURKEZTEA

Sarrera labur bat egin ondoren, Jonan Fernándezek Paul Ortigari eman dio hitza. Azken horrek adierazi duenez, Kontseilu Errektoreak urriaren 15ean onartu zuen [memoria](#). Eta jarraian, 2017. urteko mugarr nagusien, dokumentuaren egituraren eta I. kapituluaren azalpen laburra egin du.

GGKEen Koordinakundearen izenean Mila Domínguezek adierazi du ez duela memoria sakonetik aztertzeko behar adina denbora eduki, eta horregatik eztabaida GLEKaren hurrengo bilkurara eramateko eskatu du.

3. EKINTZA HUMANITARIOKO DEKRETU-PROIEKTUAREN BERRITASUN NAGUSIEN AURKEZPENA

Sarrera labur bat egin ondoren, Jonan Fernándezek Pilar Diezi eman dio hitza, eta azken horrek dekretua aldatzeko arrazoi nagusien berri eman du, baita aldaketa nagusiak [aurkeztu](#) ere. Jarraian, Ana Rojok dekretua onartzeko prozedura aurkeztu du. Eta Kontseilurako data nagusiak ekarri ditu gogora: azaroaren 20an, dekretu-proiektuaren testua bidaliko zaie interesdunei, eta abenduaren 10era arteko epea

irekiko da nahitaezko txostena egin aurreko kontsiderazioak jasotzeko; abenduaren 17ko bilkuran, berriz, nahitaezko txostena onartuko da, eta haren zirriborroa landuko dugu, jasotako ekarpenetatik abiatuta, batzorde iraunkorrak abenduaren 12an edo 13an egingo duen bilkuran.

Patricia Bárcenak eta Gorka Urrutiak adierazi dute zalantzak dauzkatela gizarte-eragileek beren kolektiboak ordezkatzeko duten erantzukizunaren eta haien jardunbidearen inguruan, eta ildo horretan adierazi dute Euskadiko GGKEen Koordinakundeak baduela egitura bat, baina gainerako guztiek ez dutela. Jonan Fernándezek iradoki du ahalik eta partizipatiboena egiten saia daitezela. Ana Rojok erantsi duenez, ondoren informazioa jendaurrean jarri behar da IREKIAren bitartez, non herritarrek banan-banan edo taldeka parte hartzeko aukera izango duten baina nolana ere, txostena egiteko hobe liteke, ahal den neurrian, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen bildu gabeko eragileen iritzia biltzea, gutxienez ekintza humanitarioaren alorrean esku-hartze aktiboena duten erakundeen ahotik jasotakoak.

María Viaderok galdetu du GLEKaren nahitaezko txostena eta IREKIAko parte-hartzaile soziala nola uztar daitezkeen, azken horren ekarpenak GLEKaren osoko bilkuran ez direla aztertzen kontuan hartuta. Ana Rojok erantsi duenez, xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen legeak ezartzen ditu jarraitu beharreko urratsak. Jonan Fernándezek erantsi duenez, lege edo dekretu bat egitea edo gida-plan bat egitea ez dira gauza bera, azken horretan malgutasun handiagoa dagoelako parte hartzeko guneak sortzeko.

Maria del Mar Magallónek gogoeta egin du auditoria bidezko justifikazio modu berria biltzearen egokitasunaren inguruan, bereziki prozedura berri hori inplementatzeko testuinguru zailenetako batean gaudela aintzat hartuta. Eta jarraibide batzuk ba ote dauden galdetu du. Pilar Diezek erantzun dio diru-laguntzei buruzko legeak baldintzak ezartzen dituela, besteak beste, auditoria-enpresen herrialdeetan nahitaez erregistratuta egon behar dutela. Eta, salbuespenez, fakturekin justifikatzeko aukera jaso dela, baldin eta herrialde batean kontu-auditoreen erregistro ofizialik ez badago edo testuinguru-arrazoiak tarteko aukerarik ez badago.

Eztabaida amaiturik Jonan Fernandezek barkamena eskatu eta alde egin du, eta Sofía Marroquín jarri da bilkuraren buruan.

4. LARRIALDIKO LAGUNTZA HUMANITARIORAKO BATZORDEA BERRIRO JARDUNEAN JARTZEAREN EGOKITASUNARI BURUZKO EZTABAIDA

Sofía Marroquínek Noemí de la Fuenteri eman dio hitza, eta azken horrek gogoetarako [oinarrizko dokumentua](#) aurkeztu du, bilkuraren aurretik bidali dena. Eta informazio gehiago eskaini digu [kide anitzeko organoen ebaluazio- eta hobekuntza-proiektuaren inguruan](#). Proiektu horretatik planteatu digute batzordea berriro jardunean jartzea zentzuzkoa ote den baloratzeko, dauzkan arau-eskakizunak aintzat hartuta, edo lantalde malguago bat sortzea komeni ote den.

Eva Silvánek galdetu du GLEKarek baitan zer beste batzorde dauden. Noemí de la Fuentek zera erantzun dio, 158/2008 Dekretuaren 5.3 artikuluari jarraikiz osoko bilkurak egokitzat jotzen dituen batzordeak osa daitezkeela, eta, gutxienez, batzorde iraunkor bat (5.4 artikulua) eta larrialdiko laguntza humanitarioko batzorde bat eratu behar direla. Ildo beretik adierazi du GLEKarek historian ad hoc lantaldeak sortu izan direla gida-planak egin eta ebaluatzeko, baina ez batzorde moduan.

Eva Silvánek berriz ere hitza hartu du, eta ekintza humanitarioaren testuingurua aldatu dela adierazi du. Euskadin hainbat gobernu- eta gizarte-eragilek eta hainbat akademiko eta adituk egiten duten lana balioan jarri du, eta koordinaziogune bat eduki beharra nabarmendu du. Diagnostikoarekin ados egonagatik, Noemí de la Fuentek zalantzan jarri du GLEK koordinazio horretarako gune egokiena izatea, eragile humanitario nagusiek ez dutelako zertan bertan ordezkaturik egon, eta ad hoc beste gune batzuk sortzea hobe izan litekeela iradoki du, GLEAren Ekintza Humanitarioko Estrategia egiteko prozesuan egin den bezala, esate baterako.

Patricia Bárcenak iradoki duenez, koordinazioguneak badaude, GLEAk gidatuak, eta ez dute zertan GLEKarek barruan egon. María del Mar Magallónek erantsi duenez, (i) zertarako nahi dugun zehaztu beharko genuke batetik; eta (ii) GLEKarek egituratik kanpoko talde batek politika publikoetan eragiteko aukera nola bideratu bestetik.

Ildo beretik, Gorka Urrutiak adierazi du Deustuko Unibertsitatearen ustez garrantzitsua dela kontsulta, lan eta eztabaidarako gune bat izatea, inplikaturako eragileek osatua eta maiztasun jakin batekin bilduko dena.

Noemí de la Fuentek ondorioztatu du, egindako ekarpenetatik, itxuraz denok bat datozela koordinatzeko gune bat eduki behar diren inguruan, eta bi alternatiba planteatu ditu horren harira: (i) gune hori GLEKarek kanpotik sortzea; eta (ii) GLEKarek osaera aldatzea, eragile humanitarioentzat plaza batzuk erreserbatzen direla bermatzeko eta haren baitan lantalde bat sortzeko.

Sofía Marroquínek ahaleginak arrazionalizatu beharra planteatu du. Eta aurrera jarraitu du esanez politikak egiteko proposamenak bideratzean ez lukeela inolako arazorik izango unean-unean kontseiluko kide direnei laguntza eskatzeko. Ildo horretan, Paul Ortegak zera proposatu du, gutxienez urtean behin, GLEKarek bilkuretako batean ekintza humanitarioaren gaiari heltzea.

Eva Silvánek galdetu du batzorde batek gutxienez zenbat bilera egin behar dituen. Noemí de la Fuentek argitu dionez, batzordearen funtzionamendua garatzen duen barne-erregelamendurik edo araudirik ez dago.

Eva Silvánek erantsi du antolamendua funtsezkoa iruditzen zaiola, eta nahitaezko arau-esparru bat izatea lagungarria dela ildo horretan. Noemí de la Fuentek aipatu duenez, borondatea da gauzen funtzionamendu egokia ahalbidetzen duena, arauen presioa baino gehiago. Eta adibide gisa jarri du larrialdiko laguntza humanitariorako

batzordea 2010etik bildu gabe dagoela, 1/2007 Legea eta 158/2008 Dekretua gorabehera.

Paul Ortegak orain artean eztabaidatutakoa laburbildu nahi izan du, honako ideia hauen bitartez: (i) koordinaziogune baten premia atzeman da; (ii) GLEKak ez du zertan esparru onena izan; (iii) beste koordinaziogune batzuk bilatuko dira, GLEK buruan; eta (iv) osoko bilkurak, gutxienez urteko bilkura batean, ekintza humanitarioko gaiei helduko die. Sofía Marroquínek erantsi duenez, gogoeta lasaiagoa egin behar da urteko bilkura horretan aztertu beharko liratekeen gaien inguruan.

Bozketak egin da: Noemí de la Fuentek adierazi duenez, aretoan 20 pertsonak dute botoa emateko eskubidea, Jonan Fernández, Ander Añibarro eta Inma Basterra bertan ez daudenez gero. 18 pertsonak batzordea bertan behera uztearen aldeko botoa eman dute, 2 abstenitu dira, eta inork ez du kontra bozkatu.

Natalia Rodríguezek adierazi du batzordea 1/2007 Legeari eta 158/2008 Dekretuari jarraikiz sortu zela, eta araudi hori aldatzeko prozeduraz galdetu du. Noemí de la Fuentek argitu duenez, kide anitzeko organoak ebaluatu eta hobetzeko proiektuaren esparruan aurreikusita dago lege batean —2020ko aurrekontuei buruzkoa izan liteke— bidezkoztat jotzen diren artikulua edo araudiak indargabetzeko prozedura, xedapen gehigarrien bitartez.

Adostu dutenez, batzorde iraunkorrean aztertuko da egokia ote den 2019an berriro ere aztertzea GLEKaren osoko bilkuran ekintza humanitarioari heltzeko modua eta egokitasuna.

5. BESTE BATZUK; GALDE-ESKEAK

Paul Ortegak jakinarazi du proiektuen deialdiari buruzko ebazpena azaroaren 28ko EHAA-n argitaratuko dela. Eta, ondoren, tramitagune bidez jakinaraziko zaiela, eta laguntza onartu beharko dutela ordainketa izapidetu ahal izateko ezarritako epean.

Iñaki Orubek [euskar lankidetzaren publikoaren atariari buruz](#) galdetu du. Paul Ortegak adierazi duenez, azaroaren 30ean aurkezpena egingo da Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare aretoan, María Díaz de Haro kalean. Jarraian, Real Instituto Elcano erakundeko Aitor Pérezek lankidetzaren azpiestatutari buruzko hitzaldia emango du, haren erronkak aztertuz.

Aztertzeke beste gairik ez zegoenez, 13.44an bilkura amaitutzat jo da.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA**

**JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ
ERDOCIA**

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO
PRESIDENTEA**